Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2016ko abuztuaren 9a, asteartea — 151 — Martes, a 9 de agosto de 2016

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ZARAUZKO UDALA

*Abendañoko Plan Partzialaren 15. eta 16. industriarako partzelen eta bien arteko bigarren mailako bidearen (33. partzela) xehetasun azterketa. Behin betiko onespena.*

2016ko uztailaren 26an egindako bilkuran, Tokiko Gobernu Batzarrak honakoa erabaki zuen:

2016ko maiatzaren 23an egindako bilkuran, Zarauzko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen hasierako onespena ematea, hainbat baldintza jarrita, honako xedea zuen xehetasun azterketa bat: Abendañoko plan partzialaren 15. eta 16. partzelen arteko bigarren mailako bideren kokapena lekuz aldatzea. Otzarreta Comunicación SA sozietateak abiarazi zuen espedientea.

Akordioa eragindako partzeletako jabeei jakinarazi zitzaien, eta espedientea jendaurrean jarri zen. Ez zen alegaziorik aurkeztu.

Sustatzaileak hasierako onespeneko dokumentuan antzemandako akatsak zuzentzeko egin beharreko aldaketak egin ditu.

Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuak informatu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak

ERABAKI DU

*Lehenengoa.* Behin betiko onespena ematea Abendañoko plan partzialaren 15. eta 16. industriarako partzelen eta bien arteko bigarren mailako bidearen –33. partzela– xehetasun azterketari; Otzarreta Comunicación SA sozietateak abiarazi du espediente hori.

Onartutako dokumentua da 2016ko uztaileko testu bategina, Borja Gabilondo arkitekto teknikoak sinatutakoa.

Onespena ondorengo baldintzetan eman da:

— Lekuz aldatuko den bigarren mailako bidea urbanizatu egin beharko da eta hori, alboko partzeletan egingo den aurreneko pabiloi berriari lehen erabilerako lizentzia eman baino lehen.

— Abendaño kalea eta bigarren mailako bidea lotuko dituen sarbidea arean dauden beste sarbideen antzeko ezaugarriak izango ditu diseinuan zein materialetan.

— Abendañoko birpartzelazio proiektua aldatu beharko da xehetasun azterketari egokitzeko eta bai 15. eta 16. industriarako partzelen bai euren arteko bigarren mailako bidearen (33. partzela) kokapena, konfigurazio fisikoa eta azalerak formalki erregularizatzeko xedez.

*Bigarrena.* Onartutako dokumentua Foru Aldundiko hirigintzako plangintzaren erregistro administratibora bidaltzea.

Horren ondoren, behin betiko akordioaren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Halaber, behin betiko onespeneko akordioa lurralde historikoan gehien zabaltzen den egunkarian argitaratuko da eta bigarren mailako bidearen jabe guztiei jakinaraziko zaie.

Hala jakinarazten da, orok jakin dezan eta ondorio egokiak izan ditzan. Erabakia behin betikoa da, eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Horren aurka, bi hilabeteko epean, admi-

## AYUNTAMIENTO DE ZARAUTZ

*Estudio de detalle de las parcelas industriales 15 y 16 del Plan Parcial de Abendaño y del vial secundario a construir entre las mismas (Parcela 33). Aprobación definitiva.*

La Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada el día 26 de julio de 2016, adoptó el siguiente acuerdo:

La Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Zarautz, en sesión celebrada el día 23 de mayo de 2016 acordó otorgar la aprobación inicial, con condiciones, a un estudio de detalle con la siguiente finalidad: modificar el emplazamiento del vial secundario a construir entre las parcelas 15 y 16 del plan parcial de Abendaño. El expediente fue promovido por la sociedad Otzarreta Comunicación SA.

El acuerdo fue notificado a los propietarios de las parcelas afectadas y el expediente fue expuesto a información pública. No se presentaron alegaciones.

La promotora ha realizado las modificaciones para corregir los errores advertidos en el documento de aprobación inicial.

Previo informe del Departamento de Urbanismo y Medio Ambiente, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad,

ACUERDA

*Primero.* Aprobar definitivamente el estudio de detalle de las parcelas industriales 15 y 16 del plan parcial de Abendaño y del vial secundario a construir entre las mismas –parcela 33– promovido por la sociedad Otzarreta Comunicación SA.

El documento aprobado es el refundido de julio de 2016, suscrito por el arquitecto técnico Borja Gabilondo).

La aprobación se otorga con las siguientes condiciones:

— El vial secundario a desplazar deberá ser urbanizado antes de otorgar la licencia de primera utilización al primer pabellón industrial que se construya en las parcelas colindantes.

— El acceso a construir desde Abendaño kalea al nuevo vial secundario tendrá las mismas características que los ya existentes en el área en cuanto a diseño y materiales.

— Habrá de modificarse el proyecto de reparcelación de Abendaño para adecuarlo al estudio de detalle y regularizar la ubicación, la configuración física y la superficie de las parcelas industriales 15 y 16 y del vial secundario existente entre ambas (parcela 33).

*Segundo.* Remitir el documento aprobado al registro administrativo de planeamiento urbanístico de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Posteriormente, el contenido íntegro del acuerdo de aprobación definitiva se publicará en el Boletin Oficial de Gipuzkoa. Igualmente el acuerdo de aprobación definitiva se publicará en el diario de mayor difusión del territorio histórico y será notificado a todos los propietarios del vial secundario.

Lo que se publica para general conocimiento y efectos, con indicación de que contra el presente acuerdo, que pone fin a la vía administrativa, se podrá interponer recurso contencioso-

EK\CV GAO-I-2016-05829

nistrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da: Bilbon egoitza duen Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Salan.

Aipatutako epeak iragarki hau argitara ematen denetik edo, beranduago egiten bada, interesdunak jakinarazpena jaso eta biharamunean hasiko dira.

Zarautz, 2016ko abuztuaren 3a.—Alkatea. (5829)

administrativo en el plazo de dos meses, ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco con sede en Bilbao.

Los plazos señalados se computarán a partir del día siguiente al de la publicación del presente anuncio o, de ser posterior, al de la notificación individualizada a los interesados.

Zarautz, a 3 de agosto de 2016.—El alcalde. (5829)

EK\CV GAO-I-2016-05829